

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeari

Udal honek, 2024ko urriaren 24ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari.

Iragarkia 2024ko urriaren 30eko ALHAOn, 124. zenbakian, argitaratu zen, eta jendaurrean egoteko aldian ez zenez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onetsi da, eta honela geratu da idatzita:

“TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zergari buruzko foru arau berezian jasotakoaren arabera, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eskatzen du ordenantza honen arabera, eta ordenantzaren zati da aplikatu beharreko tarifen taula jasotzen duen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Hau da zerga egitatea:

1. Bide publikoan ibiltzeko egokiak diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titularra izatea, edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerrri honi badagokio.

2. Ibilgailua zirkulaziorako egokia da baldin eta dagozkion erregistro publikoetan matrikulatuta badago, eta baja eman gabe. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena eta turismo matrikula duten ibilgailuak ere zirkulatzeko egokitzat joko dira.

3. Honako hauek ez daude zerga honen kargapean:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, baldin eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena eman bazaie.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdi atoiak, baldin eta haien zama erabilgarria 750 kilogramo baino gehiagokoa ez bada.

III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. artikulua

1. Honako hauek zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsara edo herritarren babesera atxikitakoak.

b) Beste herrialde batzuetako ordezkari diplomatikoen, kontsul bulegoetako kideen, agente diplomatikoen eta kontsul funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, bai eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Arautegi Orokorren II. eranskineko A letrak aipatzen dituen mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak: "350 kg baino gutxiagoko tara duen ibilgailua, eraikitze moduagatik lurralde lauan 45 km/h abiadura ezin badu gainditu eta disfuntzio edo ezintasun fisikoren bat duten pertsonak erabiltzeko berariaz eraiki edo proiektatu bada (ez da nahikoa moldatzearekin). Gainerako ezaugarri teknikoek dagokienez, hiru gurpileko ziklomotorrekin parekatuko da".

Era berean, zergaren ordainketatik salbuetsiko dira mugikortasun urria duten pertsonen izenean dauden eta eurak bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hau egoerak irauten duen artean aplikatuko da, bai desgaitasuna duten pertsonak gidatutako ibilgailuen kasuan, bai desgaitasuna duten pertsonak eramateko ibilgailuen kasuan.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bakoitzari bat baizik ezin zaio aplikatu, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Paragrafo honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek joko dira pertsona minusbalioduntzat:

– Ehuneko 33ko minusbaliotasun maila edo handiagoa eta ehuneko 65ekoa baino txikiagoa onartuta dutela, mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak. Honako hauek dute mugitzeko gaitasuna murriztuta: minusbaliotasun gradua onartu, adierazi eta kalifikatzeko prozeduraren abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskineko baremoko A, B eta C letretan azaltzen diren egoeretako batean daudenak.

– Ehuneko 65eko minusbaliotasuna edo handiagoa duten pertsonak.

Salbuespen hori araututa dago eta eskatu egin behar da. Udal organo eskudunak berariaz emandako administrazio egintza bidez emango zaie baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek, eskatuz gero. Eskaeran hauek adierazi behar dira: ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuradun izateko arrazoia. Horiekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

– zirkulazio baimenaren fotokopia.

– Arabako Foru Aldundiak edo organo eskudunak emandako minusbaliotasun ziurtagiria. Ez da nahikoa izango balorazio taldeak emandako irizpen tekniko-fakultatiboa.

– ibilgailu hori minusbaliotasuna duen pertsonak bakarrik erabiliko duela adierazten duen zinpeko adierazpena.

Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

Salbuespenaren onarpenak eskaera egin ondorengo urtetik aurrera izango du eragina eta ez du atzeraeraginik izango. Hala ere, zerga onura likidazioa irmoa izan aurretik eskatzen denean, onartu egingo da, baldin eta zerga ordaintzean hura gozatu ahal izateko eskatutako betekizunak betetzen badira.

f) Gidaria barne bederatzita plaza baino gehiago dituzten hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak.

g) Nekazaritzako ikuskatze txartela duten traktore, atoi, erdiatoi eta makinak.

2. Artikulu honen 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesa dutenek eskatu egin beharko dituzte, eta adierazi ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia. Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

3. 1. apartatuaren e) letraren bigarren paragrafoan xedatutako salbuespenari dagokionez, ezintasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko du interesdunak, organo eskudunak eginga, bai eta ibilgailuaren zertarokoa justifikatu udalari ere, udalak berak zerga ordenantza honetan xedatutako eran.

4. Zergaren kuota osoaren ehuneko 50eko hoberia izango dute historikotzat katalogatutako ibilgailuek, bat etorritik Ibilgailu Historikoen Erregelamendua onesten duen irailaren 10eko 892/2024 Errege Dekretuan xedatutakoarekin, betiere ibilgailu horiek trafiko buruzagitzaren Ibilgailu Historikoen Erregistroan inskribatuta badaude. Hobari hori eskatu egin behar da, eta, beraz, baliatu ahal izateko, titularrek autoaren izaera historikoa eta Trafikoko Ibilgailu Historikoen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Era berean, zergaren ehuneko 35eko hoberia izango dute ibilgailu klasikoek (25 urte edo gehiago dituzten ibilgailuak, fabrikatu zirenetik edo lehen matrikulaziotik zenbatzen hasita, baldin eta fabrikatu zituzteneko ezaugarri berberak badituzte).

– Hobari hori baliatu ahal izateko, ibilgailuaren titularrak udal zerga guztiak ordainduta izan beharko ditu. Eskaera ibilgailua eskatutako antzinatasunera iristen den egunetik hurrengo urteko martxoaren 31ra bitartean egin behar da, antzinatasun hori egiaztatzen duen dokumentazio teknikoa aurkeztuta.

– Hobariak ibilgailuak eskatutako antzinatasunera iritsi ondorengo urtetik aurrera izango ditu ondorioak. Hoberia aurreko paragrafoan ezarritako epea igaro ondoren eskatzen denean, hoberia emateak, hala dagokionean, eskaeraren dataren hurrengo zergalditik aurrera izango ditu ondorioak.

5. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuantan ehuneko 30eko hoberia aplikatuko zaie bost plaza edo gehiagoko ibilgailuei, baldin eta haren titularra indarreko legeriaren arabera ugaria den familiako kideren bat bada, eta, beti ere, jarraian adierazten diren errenta mailak gaintzen ez baditu. Familia bakoitzeko, ibilgailu batek baino ez du izango hoberia. Errenta da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 71. artikuluan aipatzen den pentsio konpentsazileengatik eta elikagaiengatik urteko pentsioengatik murrizketan murriztutako zerga oinarria. Hauek dira familia ugarietako gehieneko errentak:

SEME-ALABA KOPURUA	DIRU SARRERA GARBIAK FAMILIA UNITATEKO	HOBARIA
3 seme-alaba, 2 seme-alaba (desgaitasuna duen 1) edo 2 seme-alabako familia gurasobakarra	32.500,00 €	%30
4 eta 5 seme-alaba	36.750,00 €	%30
6 seme-alaba edo gehiago	49.000,00 €	%30

Hobari hau urtero eskatu beharko da.

Hobari hori aplikatzea eskatzen duten zergadunek agiri hauek aurkeztuko dituzte eskaerarekin batera:

a) Familia ugariaren titulua, familia unitatea osatzen duten kideen berri ematen duena.

b) PFEZaren azken aitortenaren kopia konpultsatua eta, aitortena egitera behartuta egon ezean, familia unitateko kide guztien 10-T agirien kopia konpultsatua.

c) Ibilgailuaren fitxa teknikoaren kopia.

6. Kamioi, furgoi, furgoneta, ibilgailu misto egokigarri, autobus eta autokar motetako ibilgailu automobilerik hoberia izango dute zergaren kuotan motorren ezaugarrien, erabiltzen duten erregaiaren eta konbustioak ingurumenean duen eraginaren arabera, baldintza eta betekizun hauetakoren bat betetzen badute:

a) Ibilgailu hibridoak izatea (motor elektrikoa-gasolinakoa, motor elektrikoa-diesela edo motor elektrikoa-gasezkoa), baldin eta fabrian bertan homologatuta badaude eta isurtzen duten kutsadura murrizten duten katalizatzailak, motaren eta modeloaren arabera, badauzkate.

b) Erregai malguko ibilgailuak izatea (Flexi-Fuel FFV ibilgailuak); hau da, E85 (ehuneko 85 bio-etanol eta ehuneko 15 gasolina) izeneko nahastearen bidez ibiltzeko prestatuta dauden ibilgailu fabrian bertan homologatuak.

a) eta b) kasuetako ibilgailuek zerga kuotaren ehuneko 50eko hoberia izango dute, lehenengoz matrikulatu zirenetik lau urte naturaletan.

c) Gasolina edo gasoliozko turismo ibilgailu berriak izatea, eta haien marka eta modelo, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren arabera, ibilgailu eraginkorren artean egotea, A energia efizientziaren kalifikazioarekin, abuztuaren 2ko 837/2002 Errege Dekretuak xedatutakoaren moduan. Dekretu horrek Espainiako lurraldean salgai jartzen diren edo finantza alokairuan eskaintzen diren turismo berrien erregai kontsumoaren eta CO2 isurketen gaineko informazioa arautzen du. Ibilgailu horiei zerga kuotaren ehuneko 25eko hoberia emango zaie, lehenengoz matrikulatu zirenetik bi urte naturaletan.

d) Motor elektrikoko ibilgailuak eta/edo ezer isurtzen ez dutenak izatea. Ibilgailu horiei zerga kuotaren ehuneko 50eko hoberia emango zaie, lehenengo matrikulatu zirenetik lau urte naturaletan.

Udalak ibilgailuaren ezaugarri teknikoaren egiaztagiria eta zirkulazio baimena eskatu ahal izango du, salbuespen eta hobari horiek emateko.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira ibilgailu baten trakzio mekanikoko zirkulazio baimean titular moduan ageri diren pertsona fisikoak eta juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako erakundeak.

V. KUOTA

6. artikulua

1. Tarifen taularen arabera eskatuko da zerga; eranskinean dago jasota taula hori.

2. Ibilgailu mota zehazteko, arautegietan ezarritakoa hartuko da kontuan; arau hauek ere kontuan izango dira:

a) Ibilgailu bat furgoneta izango da, baldin eta turismo ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen bada, dela eserlekuak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modelo funtsean aldatzen ez duten aldaketak eginez. Furgonetek turismoei dagozkien zergak ordainduko dituzte, potentzia fiskalaren arabera, kasu hauetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailua bederlatzi pertsona baino gehiago eramateko prestatuta badago, gidaria barne, autobusei dagozkien zergak ordainduko ditu.

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badauka, kamioiei dagozkien zergak ordainduko ditu.

b) Zerga honen ondorioetarako, motogurdiak motozikletatzat hartuko dira, eta, beraz, zilindradaren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, trakzioa duen zatiak eta hark tiratutako atoiak edo erdiatoiak, biek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotor, atoi eta erdiatoien kasuan, duten edukiera dela eta matrikulatzeko obligaziorik ez badute, zirkulaziorako gai joko dira industria ordezkartzak dagokion ziurtagiria ematen duen unetik beretik, edo, hala badagokio, benetan zirkulazioan dauden unetik.

e) Trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek tiratu beharrik gabe bide publikoetan ibil daitezkeen makina autopropulstakuek traktoreen tarifen arabera ordainduko dute zerga.

f) Betiere, tarifen D) letran azaltzen den "traktore" izendapen orokorraren barruan sartzen dira traktokamioiak eta "obra eta zerbitzuetarako traktoreak".

g) Ibilgailuaren potentzia fiskala, zaldi fiskaletan emana, abenduaren 23ko 2822/98 Errege Dekretuaren 11.20 artikuluan testu beraren V. eranskinarekin loturik xedatutakoaren arabera finkatuko da. Dekretu horren bidez onartu zen Ibilgailuen Araudi Orokorra.

VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

7. artikulua

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, salbu eta ibilgailua lehenengoz eskuratu bada edo baja eman bazaio. Kasu horietan, zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean bertan hasiko da edo trafiko buruzagitzan baja ematen zaion egunean amaitu.

2. Zergaldiko lehen egunean sortzen da zerga.

3. Ibilgailua lehen aldiz eskuratzean, zergaren kuota eskuratze egunetik abenduaren 31ra bitarteko aldiari proportzionalki dagokiona izango da, edo ibilgailuari baja ematen zaion egunera arteko aldiari dagokiona, kasua hori bada.

4. Ibilgailuari baja ematen bazaio, zergaren kuota kalkulatzeko, urtarrilaren 1etik trafiko buruzagitzan ibilgailuari baja ematen zaion egunera bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan.

VII. KUDEAKETA

8. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den herriko udalari dagokio kudeaketa, likidazioa, ikuskatzea eta bilketa, bai eta zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea ere.

9. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua

Udal administrazioak emandako ordainagiriaren bitartez egiaztatuko da zerga ordaindu izana.

11. artikulua

Ekitaldi bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan ordainduko da zerga; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio-eta.

12. artikulua

Matrikulazioa berria bada, edo zergen ondorioetarako ibilgailuaren sailkapena aldatzen duen bestelako aldaketaren bat egiten bada, interesdunek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulan sartzeko, matrikulatu edo aldaketa egin eta 30 egun balioduneko epean:

- Zirkulazio baimena.
- Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- NAN edo IFK.

13. artikulua

1. Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa eskatzen dutenek, hau da, zirkulatzeko gaitasun agiria, aldeztatik egiaztatzen beharko dute zerga ordaindu izana.

2. Ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari aldeztatik frogatu beharko diote aurkeztu zaien azken ordainagiria ordaindu dutela, kasu hauetan: ibilgailuak eraberritu badituzte, zergaren ondorioetarako sailkapena aldatzeko moduan; ibilgailua eskualdatzen badute; ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitza aldatzen badute; edo ibilgailuari baja ematen badiote. Hala badagokio, kudeaketaren eta ikuskatzearen bidez, kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak ordaintzeko eskatu ahal izango zaie. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.

3. Trafiko buruzagitzek ez dituzte ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak izapidetuko, aldeztatik zerga ordaindu izana egiaztatzen ez bada.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Toki Ogasunak aldatzen dituen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik ibilgailu batzuk trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergatik salbuetsita egon dira zerga horri buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauko 2.1.d) artikulua testu zaharrean ezarritakoaren arabera. Ibilgailu horiek ez badute betetzen foru arau honen 2.1.d) artikulua testu berrian ezarritakoa, testu zaharreko salbuespena aplikatzeko eskubidea edukiko dute, ibilgailuak testu hartan salbuespena aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen dituen bitartean.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, eranskinarekin batera, 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte”

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza

ERANSKINA

Tarifak

IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTA	KUOTA EUROTAN
A) Turismoak	
8 zaldi fiskal baino gutxiago	19,10
8-11,99 zaldi fiskal	51,62
12-15,99 zaldi fiskal	108,97
16-19,99 zaldi fiskal	135,64
20 zaldi fiskal baino gehiago	169,64
B) Autobusak	
21 plaza baino gutxiago	126,18
21 - 50 plaza	179,70
50 plaza baino gehiago	224,62
C) Kamioiak	
1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria	64,05
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria	126,18
2.999 kg baino gehiagoko eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarria	179,70
9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria	224,62
D) Traktoreak	
16 zaldi fiskal baino gutxiago	26,76
16-25 zaldi fiskal	42,05
25 zaldi fiskal baino gehiago	126,18
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdiatoiak	
1.000 kg baino gutxiago eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria	26,76
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria	42,05
2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria	126,18
F) Bestelako ibilgailu batzuk	
Ziklomotorrak	6,70
125 cc arteko motozikletak	6,70
125 cc baino gehiagoko eta 250 cc bitarteko motozikletak	11,46
250 cc baino gehiagoko eta 500 cc bitarteko motozikletak	22,95
500 cc baino gehiagoko eta 1.000 cc bitarteko motozikletak	45,90
1.000 cc baino gehiagoko motozikletak	91,77

Artziniega, 2024ko abenduaren 16a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES